



EUSKARAREN LEGEAK



EUSKARAREN ARAUBIDE JURIDIKOA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN, NAFARROAN ETA IPAR EUSKAL HERRIAN*

Iñaki Agirreazkuenaga

Zuzenbide Administratiboko Katedraduna, EHU

* Lan hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jarduerak diruz laguntzeko ikerketa-egitasmoaren babesean egina dago. (IT-371-07 erref.).

I. SARRERA

Indarrean dagoen legediarekin bat, Euskal Herriko hiru errealitate juridikoetan, euskara ofiziala da Euskal Autonomia Erkidego osoan (EHAE 6.1 art.) baita Nafarroako “euskal hiztunen eramuetan” ere (NFBHLO 9.2 art.). Ipar Euskal Herrian ordea, soilik frantsesa da ofiziala¹. Berez esan dezakegu hizkuntza bat ofiziala dela, botere publikoek hizkuntza hori beraien arteko eta subjektu pribatuekiko komunikaziorako ohiko bitarteko gisa onartu dutenean, erabateko balio eta eragin juridikoekin. Agerikoa da, Euskal Herriko lurralde bakoitzean euskara ofizialtzat aitortzearen ondorio juridikoak, biztanleen hizkuntza-eskubideen estatus ezberdina dakarrela euskararen erabileran eta derrigorrezko hezkuntza-esparruan, euskararen irakaskuntza bermatu beharko litzatekeelako eragin-korki ofiziala deklaratzeko den eremuetan.

Jakina, legeek erabakitzen dute beti hizkuntza bat ofiziala den ala ez. Nolanahi ere, nabarmena da, hizkuntza gutxitu baterako eskubideak (oraindaino euskara den bezala Euskal Herriaren zati gehienetan) bere erabilera eragozten duela toki, harreman eta egoera askotan, ofiziala izan arren lurraldearen zati batean. Izan ere, hizkuntzaren normalizazioak

galdatzen du, administrazio-egiturak, botere publikoak eta, batik bat, errealitate soziala molda daitezela, hizkuntza-ofizialtasuna aitortzen den toki horretara, nahiz eta bertan bere ezaguera soziala gutxiengo bat izan.

Hortaz, Euskal Herriko eskualde nahiz lurralde ezberdinetan dagoen errealitate soziolinguistikoak eta legez anitza denak zera galdatzen du: tokian tokiko plangintza bat egitea, euskara normalizatzeko eta ahalbidezko erabilera eremu guztietan, lehenik eta behin, hizkuntzaren ofizialtasuna legez horrela onartzen den tokietan. Bigarrenez, horrek ez du esan nahi, inola ere, euskararen erabilera hedatu behar ez denik lurralde guztietara, hezkuntza nahiz gizarte-eremuetan, bere sustapenak hiritarren sostengua duenean.

Nolanahi ere, halabeharrezkoa dirudi, euskaldunak ez diren eremuetan, errealitate soziolinguistikoak, egitez, beheratu egin ohi duela hizkuntza gutxituen estatusa, ofizialtasunetik erdi-ofizialtasunera, hain zuzen ere. Edo are okerrago; ezerezean uzten duela, zenbat adierazpenean ofizialtasun bera. Ahantzi ezin dena, ordea, zera da: ofizialtasunak dakarren normalizazio prozesuak oinarriak finkatzen dituela, derrigorrezko hezkuntza orokorraren bitartez, etorkizuneko belaunaldiek euskara eraginkortasunez jakingo dutela bermatzearen.

Horrenbestez, jarraian, euskararen ofizialtasuna Euskal Autonomia Erkidegoan aztergai izango da (II), baita Nafarroan ere (III). Azkenik, Ipar Euskal Herriko euskaldunen hizkuntza-eskubideak aztertuko ditugu (IV). Aldez aurretik alabaina, ikergai izango dugun legezko errealitate hori kokatuko dugu, argitara eman diren azken datuek islatzen duten errealitate soziolinguistikoan. Honetara hain zuzen ere, garrantzitsua deritzogu, aurrenik, 2006ko IV. inkesta soziolinguistikotik ateratako zenbait datu aztertzea². Aipatu inkestak, Euskal Herriko lurralde guztietan bizi den eta hamabost urtetik gorakoa den biztanleria du aztergai (2.500.000 pertsona gutxi gora behera). Hortaz, kanpo uzten du hamabost urtetik beherako biztanleria; eta datu hori azpimarragarria da, euskaldun kopuru gehien duen taldea delako.

Zehazki, ikuspegi horretatik adierazten da, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), biztanleen hirutik bat dela elebiduna, eta 16 urtetik beherako biztanleriari dagokionez, %66 dela elebiduna. Aitzitik, Ipar Euskal Herrian, elebiduna den biztanleriaren ehunekorik handiena 65 urtetik gorakoen taldean topa daiteke; ehunekoa jaitsi egiten da ostera, adin-taldeetan behera egiten den heinean. Halere, aipagarria da, Ipar Euskal Herriko gazteen artean joera honen aldaketa-zantzuak gero eta argiagoak direla; izan ere, 2006ko inkestaren datuen arabera, gazte elebidunek gora egin dute kopuruan zein ehunekoan.

Halaber, IV. inkesta soziolinguistikoaren datuei jarraiki, Euskal Herrian, 15 urtetik gorako biztanleen %25,7 elebiduna da (alegia, 1991ean baino 3,4 puntu gehiago, orduan, %22,3 baitzen), %15,4 elebidun hartzailea, eta %58,9 erdaldun elebakarra (hots, gazteleraz ala frantsesez egiten

Hizkuntzaren normalizazioak galdatzen du, administrazio-egiturak, botere publikoak eta, batik bat, errealitate soziala molda daitezela, hizkuntza-ofizialtasuna aitortzen den toki horretara, nahiz eta bertan bere ezaguera soziala gutxiengo bat izan.

*Ipar Euskal Herrian,
elebiduna den
biztanleriaren ehunekorik
handiena 65 urtetik
gorakoan taldean topa
daiteke; ehunekoa jaitzi
egiten da ostera,
adin-taldeetan behera
egiten den heinean.
Halere, aipagarria da,
Ipar Euskal Herriko
gazteen artean joera
honen aldatzea-zantzuak
gero eta argiagoak
dira.*

duena). Lurraldekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan, 15 urtetik gorako biztanleen %30,1 elebiduna da (1991ean baino 6 puntu gehiago, orduan, %24,1 zelako); Ipar Euskal Herrian ostera, %22,5 da elebiduna (1991ean baino 11 puntu gutxiago, orduan, %33,1 baitzen); eta azkenik, Nafarroan, biztanleen %11,1 da elebiduna (hots, 1991ean baino 1,6 puntu gehiago, orduan, %9,5 zelako).

Hortaz, 2006an, hamasei urtetik gorako biztanleen artean, 1991ean baino 137.200 euskaldun gehiago dago. Euskara menperatzen duen biztanleriaren hazkuntza Nafarroan eta, batik bat, Euskal Autonomia Erkidegoan gertatu da. Haatik, Ipar Euskal Herrian, biztanle euskaldunen galera oraindik gertatzen den arren, gazteen artean, euskaldunen ehunekoa hazten hasia da dagoeneko.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 15 urtetik gorako biztanleen artean, euskararen erabilera sustatzearen alde %64,7 agertzen da; Ipar Euskal Herrian berriz %41,2, eta Nafarroan %37,7. Ez alde eta ez aurka ostera, Ipar Euskal Herriko biztanleen %41,1 azaltzen da, Nafarroako biztanleen %37,7 eta Euskal Autonomia Erkidegoko %24. Azkenik, euskararen erabilera sustatzearen aurka agertzen da Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen %11,2, Ipar Euskal Herrikoen %17,6, eta Nafarroako biztanleen herena baino pixka bat gehiago (hau da, %34,2).

Badirudi euskararekiko jarrera hizkuntza-gaitasunari hertsiki lotuta dagoela. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan zein Nafarroan, euskaraz dakien biztanleriaren %85 baino gehiago, euskararen erabilera sustatzearen alde agertzen dela ikus daiteke; eta Ipar Euskal Herrian, biztanleen %75. Aitzitik, gazteleraz ala frantsesez soilik hitz egiten duten biztanle elebazarren artean, euskararen erabilera sustatzearen aurka, %24,4 agertzen da Euskal Autonomia Erkidegoan, %46 Nafarroan eta %26 Ipar Euskal Herrian. Adinari dagokionez, lurralde orotan, 65 urtetik gorako biztanleen taldean agertzen da euskararen erabilera sustatzearen aldeko ehunekorik zabalena. Euskal Autonomia Erkidegoan zein Nafarroan, orobat, handia da oso euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera azaltzen duten gazteen ehunekoa. Ipar Euskal Herrian, ordea, euskararen erabilera sustatzearen alde daudenen artean, ehunekorik txikiena gazteen taldean ageri da.

II. EUSKARAREN OFIZIALITASUNA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

1. Hizkuntza arloko oinarritzko printzipioak

Espainiar Konstituzioaren 3.1. artikuluko lehenengo paragrafoan gaztelania Estatuko hizkuntza ofizialtzat jotzen da, horrekin, bistakoa denez, gainerako hizkuntza ofizialekiko egoera desberdinean kokatuz, bera baita Autonomia Erkidego guztietan eta, beraz, Estatuko lurralde guztian,

ofiziala den bakarra. Bestalde, Konstituzioko 3.2. artikulua arabera, “gainerako hizkuntza espainiarrak ere ofizialak izango dira dagokien Autonomia Erkidegoan, bertako Estatutuen arabera”. Beraz, gaztelania-erentzat ezarritako ofizialtasun bera aitortzen zaie gainerako hizkuntza espainiarrei, nahiz eta Autonomia Erkidegoaren lurralde eremura mugatuta egon.

Halaber, Konstituzioak gaztelania jakin beharra ezartzen du, inplizituki hizkuntza dela-eta ez diskriminatzeko printzipioa ere onartuz; eta aldi berean Estatutu batzuk, hala nola Euskadikoak, Kataluniakoak edo Valentziakoak, euskara eta katalana edo valentziera, hurrenez hurren, Erkidegoko berezko hizkuntzatzat onartzen dituzte.

Hizkuntza alorreko oinarrizko printzipioak ofizialtasunarena eta hizkuntza dela-eta ez diskriminatzearena dira inolako zalantzarik gabe, eta aldiz, gaztelania jakin beharrena eta Erkidego batetako berezko hizkuntzarena osagarri gisa jo daitezke. Ikus dezagun bada hau guztia astiroago, printzipio bakoitzaren edukiak laburki aipatuz.

A) Hizkuntzen ofizialtasuna

Konstituzio Auzitegiak modu egokian adierazi duenez, “hizkuntza bat, bizi duen errealitatea eta fenomeno sozial gisa duen pisua alde batetara utziz, ofiziala da botere publikoek beraien arteko eta subjektu pribatuekiko komunikaziorako ohiko bitarteko gisa onartu dutenean, erabateko balio eta eragin juridikoak izango dituelarik” (KAE 82/1986). Beraz, hizkuntza bat lurralde batetan ofizial deklaratzaren denean, oztoporik gabe eta erabateko eraginkortasun juridikoaz erabili ahal izango da edonolako harreman publiko eta pribatuetan; alegia, ofizialtasunaren lehenengo ondorio juridikoak hizkuntzaren eskubidean datza, bai ikuspegi aktibotik baita pasibotik ere (erabiltzeko eskubide subjektiboa edozein kasutan eta erantzuna aukeratutako hizkuntzan jasotzeko eskubidea solaskidea erakunde publikoa denean). Honek, bistan denez, administrazioko eta botere publikoetako egiturak hizkuntza ofizial anitzen beharretara moldatzea galdatzen du.

Bigarrenik, hizkuntza bat ofizial deklaratzetik eratorritako ondorioen artean, juridikoki, aho batez onartuta dago, botere publikoek euren hezkuntza sisteman hizkuntza ofiziala edo ofizialak txertatzeko betebeharra hartzen dutela; izan ere, horrela, derrigorrezko hezkuntza bukatu ondoren, hizkuntza hori ikasleek jakingo dutela ziurtatzen da [honetara, gaur egun, oinarrizko legedian, 2/2006 Lege Organikoaren 2.1.j) eta 23.h) art.ek xedatzen dute aipatu betebeharra (ordura arteko LOGSEko 19.a) art. ordezkatzuz) edo, Euskadiko Autonomia Erkidegoan, Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legeko 3.2.g) art. ak].

Ildo beretik, Konstituzio Auzitegiak adierazia du “Estatuak bere osotasunean (Autonomia Erkidegoak barne direla) bai gaztelania baita hiz-

Euskal Autonomia Erkidegoan zein Nafarroan, orobat, handia da oso euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera azaltzen duten gazteen ehunekoak. Ipar Euskal Herrian, ordea, euskararen erabilera sustatzearen alde daudenen artean, ehunekorik txikiena gazteen taldean ageri da.

**Ofizialtasunaren
lehenengo ondorio
juridikoak
hizkuntzarekiko
eskubidean datza, bai
ikuspegi aktibotik baita
pasibotik ere (erabiltzeko
eskubide subjektiboa
edozein kasutan eta
erantzuna aukeratutako
hizkuntzan jasotzeko
eskubidea solaskidea
erakunde publikoa
denean). Honek,
bistan denez,
administrazioko eta
botere publikoetako
egiturak hizkuntza
ofizial anitzen
beharretara moldatzea
galdatzen du.**

kuntza ofizialaren izaera duen Erkidegoko berezko hizkuntza jakitea ziurtatzea ere betebeharrak konstituzionalak dela..., honek, jakina, bi hizkuntzak xede hori lortzea bidezko egingo duen indarrak irakatsiko direla dakar. Eta betebeharrak hori Estatututik ezezik, Konstituzio beratik ere dator (3. art.)". Horretaz gainera, Konstituzioaren interpretari gorenak erantzen duenez "erregulatutako gutxienezko ordutegiak ez balira nahikoak bi hizkuntza ofizialak eraginkortasunez irakasteko, betebeharrak konstituzional hori ez litzateke beteko" (KAE 88/1983). Beraz, ez da aski hizkuntza ofizialak irakastea, baizik eta beharrezkoa da irakaskuntza hori modu eraginkorrean antolatzea, horrela, derrigorrezko hezkuntza amaitzerakoan, ikastetxea edo hautatutako ereduak edozein dela ere, ikasleek dagokien lurralde eremuko hizkuntza ofiziala edo ofizialak jakin ditzaten.

Azkenik, hizkuntza bat ofizial deklaratzearen azken ondorio gisa zentzuzkoa dirudi ondorioztatzea —Kataluniako *Consell Consultiu* 35/1982 Txostenean egin zuen moduan— ezin dela Administrazioak darabilen hizkuntza ofiziala ez jakitea alegatu, hark, dagokion betebeharrak konstituzionalak betetz, ikastetxeetan hizkuntza ofizialaren edo ofizialen irakaskuntza eraginkortasunez bermatzen duenean. Gaztelaniari dagokionez, jakina, ondorio hori ziurtatuta dago, irakaskuntzak —Espainia osoan betebeharrak gisa orokortu zenetik— Estatu guztiko hizkuntza ofiziala ikastea bermatu baitu. Aldiz, Espainiako gainerako hizkuntza ofizialak irakaskuntzan sartzea duela gutxi gertatu da eta denek ez dute zorte bera izan. Horregatik normalizazio prozesu baten beharrean daude eta bere oinarriak belaunaldi berriei modu eraginkorrean erakustean datza.

B) Gaztelania jakin beharra

Hizkuntza alorrean Konstituzioan lehenengo nabarmentzen den alderdia da, gaztelaniaren eta Espainiako gainerako hizkuntzen ofizialtasunarekin batera esplizituki derrigorrez gaztelania jakin beharra agintzen dela. Konstituzioa egin zenean klausula hori ez zen ustekabea pasa, nahiz eta aurre-egitasmoa ez zen aldatu, eta esan daiteke gaia oso eztabaidatua izan zela, izan ere, batzuk kentzea eskatu zuten, beste batzuk ordea gainerako hizkuntzetara ere jakin beharra hedatzea eta azkenik, espainiar guztiek gaztelania jakiteko obligazioa hizkuntza horren erabilerara zabaltzea nahi izan zuenik ere egon zen, koofizialtasunak bidezko egiten duen aukeraren aurkako jarrera agertuz. Dena den, proposamen horiek ez ziren onartu eta, ondorioz, Konstituzioak gaztelaniari dagokionean soilik agintzen du jakin beharra, nahiz eta edozein hizkuntza ofizial erabateko balio eta eragin juridikoz erabiltzeko eskubidea ere ezartzen duen. Horrek zera esan nahi du: Konstituzioak ez duela gaztelania erabiltzera behartzen ez eta bi hizkuntza ofizial dituzten Autonomia Erkidegoetan inposatzen ere, baizik eta hautatutako hizkuntza ofizialaren erabilerara bermatzen duela.

Bestalde, Konstituziotik ondorioztatu nahi bada Autonomia Erkidego elebidunetako bi hizkuntza ofizialen artean ez dagoela berdintasun juridikorik jakin beharra gaztelaniari bakarrik dagokiolako, baieztapen honi zenbait ñabardura erantsi beharko zaio eta galdetu beharko litzateke botere publikoek nola edo zein modutan bermatzen duten gaztelania jakitea. Honen erantzuna derrigorrezko irakaskuntzaren eta aurreikuspen hori hezkuntza planetan sartzearen bidetik etorriko da. Baina ezin da ahaztu ofizial deklaratzetik ere aurreikuspen horixe datorrela, izan ere Estatuak, Konstituzio Auzitegiak dioenez, nahitaezko hezkuntzan hizkuntza ofizialak eraginkorki irakatsiko direla bermatzeko “betebehar konstituzionala” dauka. Beraz, betebehar honen ondorioz logikoa dirudi pentsatzea Autonomia Erkidego elebidunetan derrigorrezko irakaskuntza egiten duten ikasleek bi hizkuntza ofizial jakingo dituztela.

Laburbilduz, gaztelania jakin beharra ezartzen duen Konstituzioko klausulak hizkuntzen ofizialtasunaren eragin juridikoari ez dio ezer berezirik eransten, ez bada “behar”aren berezitasuntzat “gaztelania”ri dagokion zerbait dela ulertzen, hain zuzen ere, Estatu guztian zehar hedatzen eta irakasten den hizkuntza delako, pertsonen bizileku eta auzotasun zibila kontuan izan gabe, bai Konstituzioa onartu aurretik baita ondoren ere. Alegia, gutako inork ez daki gaztelania Konstituzioak jakiteko beharra ezartzen duelako, baizik eta derrigorrezko hezkuntzan ikasi dugulako.

Eta hori guztia, ahaztu ezin delarik hizkuntza bat jakiteko betebeharra, halaber, Autonomia Estatutu batean ezar daitekeela. Izan ere, horrela gertatzen da, esaterako, Kataluniako Estatutu berria onartzen duen 6/2006 Lege Organikoan, bertako 6.2 art.ak zera xedatzen duelako: “Kataluniako hizkuntza ofiziala katalana da. Orobat, ofiziala da gaztelera, espainiar Estatuko hizkuntza ofiziala baita. Pertsona orok bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko eskubidea dauka eta Kataluniako biztanleek haiek jakiteko eskubidea eta betebeharra dauzkate. Kataluniako botere publikoek eskubide horien egikaritzea eta betebehar honen betetzea errazteko behar adina neurri ezarri behar dute. Ezen, 32 art.ak xedatutakoarekin bat, ezin da diskriminatu hizkuntza bat zein bestea erabiltzeagatik”.

Bada, konstituzionaltasun arazorik sor al liteke, Autonomia Estatutu bat onartzen duen Lege Organiko batean halako adierazpenak egiteagatik? Gure aburuz, xedapen horrek ez dakar inolako konstituzionaltasun arazorik, baldin eta katalana jakiteko betebeharra soilik Kataluniako biztanleriara mugatzen den eta gaztelera jakiteko betebeharraren ondorio berdinak dituen. Alegia, Kataluniako biztanle batek ezingo luke formalki alegatu katalana ez dakienik; jakina, beti ere gaztelera erabil lezake eta edozein Administrazioari eska liezaioke harremanak —balio eta ondorio juridiko osoekin— gaztelera gauzatzea.

Honetara, gogora ekarri behar dugu, Konstituzio Auzitegiak 84/1986 Epaian konstituzio kontraktat jo zuela galizieraren hizkuntza-normalizazioari buruzko 3/1983 Legearen 1.2 art.. Izan ere, aipatu Lege-

Ez da aski hizkuntza ofizialak irakastea, baizik eta beharrezkoa da irakaskuntza hori modu eraginkorrean antolatzea, horrela, derrigorrezko hezkuntza amaitzerakoan, ikastetxea edo hautatutako eredia edozein dela ere, ikasleek dagokien lurralde eremuko hizkuntza ofiziala edo ofizialak jakin ditzaten.

Kataluniako hizkuntza ofiziala katalana da. Orobat, ofiziala da gaztelera, espainiar Estatuko hizkuntza ofiziala baita. Pertsona orok bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko eskubidea dauka eta Kataluniako biztanleek haiek jakiteko eskubidea eta betebeharra daukate. Kataluniako botere publikoek eskubide horien egikaritzea eta betebeharrak honen betetzea errazteko behar adina neurri ezarri behar dute.

ak galziarrak galiziera jakitera behartzen zituen, zera xedatuz: “betebehar hori ez du Konstituzioak ezartzen eta ez dago galizieraren koofizialtasunari lotua. Konstituzioko 3.1 art.ak gaztelera jakiteko betebehar orokorra ezartzen du, gaztelania Estatuko hizkuntza ofiziala delako. Hain zuzen, betebehar hori bat dator honakoa aitortzen duten Konstituzioko beste xedapen batzuekin: espainiar orok hizkuntza komunik baduela eta, ondorioz, hizkuntza hori jakintzat jotzen dela egoitza edo auzotasun faktoreak alde batera utziaz. Alabaina, ez da berdina gertatzen dagokion Autonomia Erkidegoaren esparruan koofizialak diren gainerako espainiar hizkuntzekin; izan ere, Konstituzioak ez du haiek jakiteko betebeharririk ezartzen. Noski, hori ez egiteak ez dakar diskriminaziorik, gaztelera jakitera behartzen duten arestian aipatu balizkorik ez baita gertatzen hizkuntza koofizialean”. Nolanahi ere, kontuan hartu behar dugu, galiziera jakiteko betebehar hori ez zela ezartzen Konstituzioa zuzenean garatzen zuen Estatuko legedi organikoan (egun Katalunian gertatzen den bezalaxe), lege autonomiko batean baizik (Galiziako Estatututik at). Hor-taz, Konstituzio Auzitegiaren 84/1986 Epaia ezin da aurrekaritzat jo, hizkuntza bat jakiteko betebeharra, konstituzionaltasun blokea deiturikoa osatzen duen Estatutu-arau batean ezartzen denean.

C) Lurralde batetako berezko hizkuntza

Autonomia estatutu batzuetan berezkotasun printzipioa azpimarratzen da Erakunde Publikoek Autonomia Erkidegoko berezko hizkuntzaren erabileraren lehentasuna ahalbideratzeko. Honela, adibidez, Kataluniako Estatutu berriko 6.1 art.ak zera xedatzen du: “Kataluniako berezko hizkuntza katalana da. Bada, Kataluniako Administrazio publikoetan zein hedabide publikoetan lehentasunez erabili ohi den hizkuntza da; berebat, irakaskuntzan harremanetan jartzeko nahiz ikasteko erabili ohi den hizkuntza da”.

Aurretik, Kataluniako Hizkuntz Politikari buruzko 1/1998 Legean, baieztatzen da, berezko hizkuntzaren kontzeptua katalanari aplikatzeak botere publikoak behartzen dituela hizkuntza hori babestera, modu orokorrean erabiltzera eta bere erabilpen publikoa maila guztietan bultzatzera. Hain zuzen, horretaz dihardu ere, aipatu Legeko 2. artikulua, honakoa adierazten duenean: “Katalana, berezko hizkuntza denez, Kataluniako erakunde guztien hizkuntza da eta bereziki Generalitateko Administrazioarena, toki Administrazio, korporazio publikoena, enpresa eta zerbitzu publikoena, hedabide instituzionalena, irakaskuntzakoa eta toponimiakoa”.

Dena den, aldi berean bi hizkuntza dauden Erkidegoetan, berezkotasun printzipioak ezin du ofizialtasun bikoitzaren printzipioa ezabatu. Nolabaiteko modulazioak eragin ditzake, baina orokorrean ezingo da hizkuntza bakarraren printzipioa aplikatu, bi hizkuntza ofizialeko edozeinetan burututako edozein jarduerak erabateko balio eta eragin juridikoa izango baitu. Beraz, hizkuntzen erabilerari dagokionean, Adminis-

trazio Publikoek bermatu behar dutena da herritarrek hautatutako hizkuntza ofiziala erabiliko dela *ad extra* edo kanpo harremanetan, Erkidegoaren berezkoa izan ala ez; ezberdina da lan-harremanetan —edota Administrazioaren *ad intra* edo barne harremanetan—, jarduera hauetan Erkidegoan berezkoa dena soilik erabil daiteke eta hori guztiz onargarria litzateke, beti ere noski, lege babesa bada go eta Administrazioaren zerbitzura dauden langileak hizkuntzaren ikuspuntutik trebatuta badaude.

Horrela, laburbilduz esan daiteke hizkuntz ofizialtasun bikoitzak herritarrek hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea babesten duela, eta berezko hizkuntzaren printzipioak aldiz, Administrazioko barne harremanetan lehenetsuz erabiltzea bidezko egiten duela, baita —hala egin nahi eta ahal bada— laneko hizkuntza gisa soilik hizkuntza hori erabiltzea ere. Horixe gertatzen da Estatuko Administrazio periferikoan gaztelaniarekin, Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoari buruzko Legeko 36.1. artikuluan xedatutakoaren arabera (4/1999 Legea), eta gauza bera gerta daiteke, baina alderantziz, Autonomia Erkidegoko Administrazioetan berezko hizkuntzarekin.

D) Hizkuntza dela-eta ez diskriminatzea

Sistema guztia borobiltzeko garrantzi berezia hartzen du hizkuntza dela-eta ez diskriminatzeko printzipioak, funtsezko eskubideen oinarriko gunea baita berau gauzaterakoan hizkuntza ofizial baten hautaketa edo exijentzia tarteteratzen denean. Konstituzioko 14. artikulua idazkeran hizkuntza hitza sartzeko komeni zela begi-bistakoa zen, batik bat nazioarteko itunekiko koherentziagatik. Honi buruz, kontuan izan behar da Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak (2.2. art.) eta Giza Eskubideak Babesteko Europako Hitzarmenak (14. art.) hala jasotzen dutela eta dakigun bezala, Espainiak bi testuak berretsita dituela.

Halere, Konstituzioak hori jasotzen ez duenez, mahai gaineratu beharreko galdera ondokoa litzateke: printzipio hori inplizituki sartuta ote dagoen. Erantzunak baiezkotzen dirudi, izan ere oso urruti joan gabe, tipifikatzeko borondate itxirik ez dagoela ikus baitaiteke Konstituzioko 14. artikuluan beste baldintza edo zirkunstantzia pertsonal edo sozialak aipatzen direnean, zeintzuk logikoki hizkuntzari lotuta egon daitezkeen Konstituzioko 10.2. artikulua eragin zuzena dela-eta. Aipatu artikulua, jakina denez, funtsezko eskubideei buruzko arauak alor horretan eman diren eta Espainiak berretsi dituen nazioarteko akordioaren arabera interpretatuko direla dio.

Printzipio honek izan ditzakeen ondorio praktikoak Estatu guztiko hizkuntza ofizialarekiko baita Autonomia Erkidegoetako berezko hizkuntzekiko ere eman daitezke, kasuan kasuko baldintzen arabera.

Zehazki, diskriminazioa funtsezko eskubide bat gauzaterakoan eman daiteke, hala nola funtzio publikoan lanera sartzekoan, non berez-

Kataluniako Hizkuntz Politikari buruzko 1/1998 Legea, baieztatzen da, berezko hizkuntzaren kontzeptua katalanari aplikatzeak botere publikoak behartzen dituela hizkuntza hori babestera, modu orokorrean erabiltzera eta bere erabilpen publikoa maila guztietan bultzatzera.

***Diskriminazioa
funtsezko eskubide bat
gauzaterakoan eman
daiteke, hala nola funtzio
publikoan lanera
sartzerakoan, non berezko
hizkuntzaren balorazioa
egiteko
Konstituzioaren arabera
inolako arazorik ez
dagoen baldin eta burutu
beharreko lanerako
beharrezkoa duenarekiko
zentzuzkoa eta
proportzionala den.***

ko hizkuntzaren balorazioa egiteko Konstituzioaren arabera inolako arazorik ez dagoen baldin eta burutu beharreko lanerako beharrezkoa duenarekiko zentzuzkoa eta proportzionala den; eta exijentziak ere ez luke arazorik sortu beharko, derrigortasuna bete behar den lanposturako gaitasunezko ukanbehar gisa azaltzen bada (KAE 46/1991).

Era berean, diskriminazioak aukeratutako hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubide publiko subjektiboan izan dezake jatorria, eta horrek, baita gutxiengo hizkuntzen kasuan ere, hizkuntzaren ofizialtasunean ezezik, aurrez aipatu Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituneko 27. artikuluan ere du bere oinarria. Nire iritziz hizkuntza ofizial orori dagokion eta ezabatu ezin den funtsezko eskubidea da. Hori bai, gehienez, Administrazioa hizkuntza ofizialak jakiteko betebehar konstituzionalari egokitu artean modulatu egin daiteke. Orobat, aipatu eskubidea ez da hizkuntzaren erabilera hutsarekin agortzen, baizik eta aukeratutako hizkuntza ofizialean erantzuna izateko eskubide konstituzionalera arte zabaltzen da.

Bada, oreka eta irtenbidea aurkitu beharko zaion funtsezko arazoa hauxe da: Erkidego elebidun batean, non hizkuntza ofizialetako bat biztanleen zati batek soilik ezagutzen duen, nola uztartzen diren hizkuntza erabiltzeko eskubidea eta hizkuntza dela-eta diskriminatua ez izateko printzipioa, azken honek dituen aukera guztiak kontuan izanik. Honetara, Hizkuntza Erregionalen edo Gutxituen Europako Kartak —Estrasburgon egin zenak 1992ko azaroaren 5ean eta Espainiak berretsi eta argitara eman zuenak 2001eko irailaren 15eko Estatuko Aldizkari Ofizialean— aipatu arazoa zerbait argi dezake, bere 7.2 art.ak zera xedatzen baitu: “hizkuntza erregional eta gutxituen aldeko neurri bereziak hartzen direnean, neurri horiek ez dira diskriminatzailezat joko gehien hedatuta dauden hizkuntzak hitz egiten dituztenekiko, euren helburua honakoa denean: hizkuntza horiek hitz egiten dituztenen zein gainerako hiritarren arteko berdintasuna sustatzea, baita hizkuntza horien egoera berezia aintzat hartzea ere”.

2. EUSKARAREN OFIZIALTASUNA ERAGINKORRA IZAN DADIN, BEHARREZKOA DEN HIZKUNTZA-PLANGINTZA

Euskal Autonomia Erkidegoan, Estatutua onartzen denetik aurrera (1979an, alegia), euskara normalizatzeko Legeak (1982) eta euskal funtzio publikoari buruzkoa Legeak (1989) ezartzen dituzte, funtzio publikoan sartzerakoan euskara jakitea galdu eta baloratu ahal izateko oinarriak.

Halaber, gogora ekarri behar da, lehenik eta behin, lauogeiko hamarkadan zehar, euskal Administrazioa eraikitzen ari zenean, euskara jakitea ezin zela merezimendu gisa baloratu, eta are gutxiago, gaitasunezko ukanbehar bezala. Honen arrazoia ondokoa zen: urteetan zehar Auzitegi Gorenak esaten zuela, inolako ñabardurarik gabe, Autonomia Erkidegoko berezko hizkuntza merezimendu gisa baloratze hutsa funtzio

publikorako aukeren berdintasun printzipioaren aurkakoa zela. Doktrina hori Konstituzio Auzitegiak zuzendu zuen zera xedatuz: “herritarrek hizkuntzak erabil ditzaten bermatzeko, ez lekarke arazorik botere publikoek funtzionario lanpostu jakin batzuetarako bi hizkuntzak jakitea beharrezkotzat jotzea edota hori merezimendutzat hartzea bestelako merezimenduekin batera”. (KAE 82/1986). Ondoren KAE 46/1991 k Kataluniako Funtzio Publikoari dagokionez ondorengo adierazi zuen: “Konstituzioaren arabera zilegia dela katalana maila jakin batetan ezagutzea galdatzea, hizkuntza horrek Katalunian duen izaera koofiziala eta katalanaren erabilerak Autonomia Erkidegoaren lurralde guztian duen hedapena kontuan hartuz, ezinbestekoa delako Administrazio autonomikoan funtzionarioak bere lana modu egokian burutu ahal izateko”.

Beraz, Konstituzioaren arabera ez dago arazorik berezko hizkuntza orokorrean baloratzeko, ez eta galdatzeko ere —gaitasunezko ukanbear gisa— lana modu egokian burutzeko eta herritarren hizkuntz eskubideak bermatzeko egiten bada. Horrela, Euskal Autonomi Erkidegoan, 1989an Funtzio Publikoaren Legea onartu zenean Administrazioa hizkuntz plangintzaren oinarriak ezarri ziren —adostasunean—, jeltzale eta sozialisten arteko gobernu koalizioaren gidaritzapean.

Legeko zioen azalpenean jasotzen denez, xedea “Administrazio elebiduna eraikitzeke betebeharrak utziezina” da. Hori lortzeko lanpostu bakoitzari hizkuntz eskakizun bat ezartzen zaio eta horren bidez lanpostu hori betetzeko eta dagokion lana burutzeko nolako hizkuntz gaitasuna behar den zehazten da —batetik laurako aldagaiekin—. Horretaz gainera, lanpostu bakoitzak derrigortasun-data izan dezake eta data hori betetzen denean soilik joko da hizkuntz eskakizuna nahitaezko galdapen gisa lanpostu hori bete ahal izateko. Horren ondorioz, derrigortasuna ezartzen ez den bitartean, ezarritako hizkuntz eskakizunak lanpostua hornitzeko edota kanpoko norbait aukeratzeko garaian euskara jakiteari merezimendu gisa egingo zaion balorazioa zehazteko bakarrik balioko du.

Eraz ikus daiteke arazoaren gako ez dela soilik lanpostuaren hizkuntz eskakizuna zein den jakitea (1 eskakizunak ahozko eta idatzizko ulermena funtsezko mailan menperatzea eskatzen du; 2 eskakizunak ahozko ulermena ongi menperatzea dakar; 3 eskakizunak ahozko eta idatzizko ulermen ona izatea galdatzen du; eta azkenik, 4 eskakizunak hizkuntz gaitasunaren maila espezializatua eskatzen du eta normalki unibertsitateko lizentziatuei dagokie); horretaz gainera garrantzi berezia dauka derrigortasun-datak, horixe baita lanpostu bakoitzaren hizkuntz eskakizuna galdatzen has daitekeen unea. Gai honen erregulazio zehatza, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoetan, euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak burutzen du.

Administrazio bakoitzari dagokio bere lanpostuen hizkuntz betebeharrak finkatzea —Eusko Legebiltzarrak onartutako irizpideak betez—, eta

Oreka eta irtenbidea aurkitu beharko zaion funtsezko arazoa hauxe da: Erkidego elebidun batean, non hizkuntza ofizialetako bat biztanleen zati batek soilik ezagutzen duen, nola uztartzen diren hizkuntza erabiltzeko eskubidea eta hizkuntza dela-eta diskriminatua ez izateko printzipioa, azken honek dituen aukera guztiak kontuan izanik.

**Lanpostuei
derrigortasuna ezartzeko
irizpideek
Administrazioko maila
ezberdinei tratamendu
zuzen eta proportzionala
ematea izango dute
helburu, zein kidego,
eskala edo titulazio
taldetakoak diren bereizi
gabe. Halere,
publikoarekin harreman
zuzena duten eta elebidun
gisa kalifikatutako
unitateetako lanpostuek
lehenetasuna izango dute.
Azken hauetan sartzen
dira bereziki
gazteriarekin harreman
zuzena eta ohikoa
dutenak.**

hori lanpostuen zerrenda onartzean egin ohi da; zerrenda hori Euskal Autonomi Erkidegoan prestatzerakoan, lanpostuaren izenarekin batera, zein talde, kidego edo eskalakoa den, izango duen dedikazio erregimena, hizkuntz eskakizuna eta, baldin badauka, derrigortasun-data adierazten dira.

Logikoki, antzeko lanpostuetan hizkuntz eskakizuna berdina izango da Administrazio Publikoetan, baina derrigorrezko data errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuz galdatuko da, eta hori Administrazio bakoitzaren lurralde eremuari dagokion derrigortasun indizetik aterako da; aipatu indizea kalkulatzeko euskal hiztunen kopurua eta elebidun har-tzaileen erdia gehitzen dira.

Horrela, adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoan, 2006 urteari dagozkion Erroldako datu ofizialen arabera, %37,38 badira euskal hiztunak (774.894) eta %22,14 berriz, elebidun pasiboak (458.939), Erkidegoko erakundeetan derrigortasun-indizea $37,38 + (22,14/2) = 48,45$ izango litzateke; hots, gaur egun indarrean dagoen lanpostuen zerrendan, 2006ko Erroldako datuak aplikatuz gero, Eusko Jaurlaritzako funtzionarioen %48,45ak derrigortasun-data izan beharko luke esleituta³.

Lanpostuei derrigortasuna ezartzeko irizpideek Administrazioko maila ezberdinei tratamendu zuzen eta proportzionala ematea izango dute helburu, zein kidego, eskala edo titulazio taldetakoak diren bereizi gabe. Halere, publikoarekin harreman zuzena duten eta elebidun gisa kalifikatutako unitateetako lanpostuek lehenetasuna izango dute. Azken hauetan sartzen dira bereziki gazteriarekin harreman zuzena eta ohikoa dutenak. Honetara, ezin dugu ahaztu, 30 urtetik beherako biztanlegoaren taldean, baita 15 urtetik beherakoak direnetan ere, euskaldunak nabar-menki gehiengoa direla.

Halaber, Eusko Jaurlaritzan, euskararen erabilera normalizatzeko planari dagokionez (2008-2012)⁴, oinarrizko printzipio bezala ezartzen da (19. orrian): “Sailek aukeratu ahal izango dute zein komunikaziotan egingo den euskaraz eta zenbat, malgutasunez eta progresioa zainduz, baina gutxieneko hori denek betetzen dutela eta aurrerantzean funtzio horiek gehitzen joango direla bermatuz. Horrela, derrigortasun-datak eta hizkuntza-eskakizunak benetako tresna edo bitarteko izango dira euskararen erabilerarekin lotzeko, eta ez ezagutzarekin soilik, orain arte maiz gertatu den bezala”.

Administrazio publikoetan, euskararen erabileraren normalizazioaren III. Plangintzaldia (2003-2007) baloratzen duen Txostenak⁵ adierazten du (11. orrian): “Derrigortasun-data igarota duten hizkuntza eskakizunen egiaztatze maila altua da. Orokorrean, derrigortasun-data igaro zaien titularren %55,58k dagokion hizkuntza eskakizuna edota altuago bat egiaztatu du, eta beste %5,69k dagokiona baino maila bat baxuagoa. Ezer egiaztatu gabeak, berriz, %5,64 dira. Ikusten da lanpostuen %26,26 ez dagoela titularrez beteta, hala ere, lanpostu horietan ari direnek, orokorrean, egiaztatzen dute dagokien maila; kasu horietan, gainera, titula-

rez betetzen direnean egiaztatua beharko dute. Bestalde, aintzat hartzen bada herri administrazio guztietan une honetan ari den langile oro, derrigortasun-data ezarria izan edo ez kontuan hartu gabe, ikusten da euskararen ezagutzari buruzko datuak ere onak direla: %57,43k eskuratu du hizkuntza eskakizunen bat. Administrazio Orokorriari begiratuta, berriz, ikusiko dugu hizkuntzaren ezagutzari buruzko datuak zertxobait hobekak direla oraindik: ia %60k, zehatzago esanda %59,74k egiaztatu du hizkuntza eskakizunen bat. Datu horien arabera beraz, esan daiteke, batetik, derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan, hizkuntza eskakizunen egiaztatze maila altua dela; eta bestetik, une honetan herri administrazio guztietan ari diren langileak oro har hartuta, euskararen ezagutza ere altua dela: ia %58koa”.

Balorazio-txosten berean (2003-2007), orobat, adierazten da (46-47 orrietan), IV. Plangintzaldian “euskara ere Administrazio lanerako hizkuntza bihurtuko bada, langileak euskaraz ere egin behar du lana. Eta horretarako zehaztu egin behar da zein lan-jardun gauzatzeko erabiliko den euskara lan-hizkuntza moduan, nola, norekin, noizko, eta, batez ere, zergatik. Horrez gain, langileen motibazioa indartu behar da, euskaraz lan egiteko lehen urratsak emateko, baita ere gaztelaniarekiko inertzia eten eta, arian-arian, euskaraz jarduten hasteko. Horixe izango da, hain zuzen ere, IV. Plangintzaldiaren helburua: euskara ere lan-hizkuntza normala bilakatzea; esan nahi baita, bihar-etziko planen xedea ez da izango euskararen presentzia bermatzea, zeren hori, itzulpenaren makulua erabilita bada ere, dagoeneko ziurtatuta dago neurri handi batean; hurrengo plangintzaldiko helmuga izango da Administrazioan bi hizkuntzen erabileran berdintasunerantz pauso eraginkorrak ematea. Administrazio honek zabaldu egin behar du bi hizkuntza ofizialak erabiltzearen aukera, betiere urratsez urrats eta eragile guztien adostasunaz. Eta une honetan tx eman daiteke urrats garrantzitsu hori, aurreko plangintzaldien bitartez ezagutza maila ona erdietsia den une honetan: izan direlako gara”.

Honetara, dagoeneko onartu dira “Eusko Jaurlaritzan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak”⁶. Honela, esaterako, aipatu irizpideen 2 art. ak xedatzen du: “Euskara eta gaztelania zerbitzu-hizkuntza dira herritarrekin, harremanetako hizkuntza beste administrazio batzuekin, eta lan-hizkuntza Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan. Hori betetze aldera, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta daukaten Eusko Jaurlaritzako langileei bi hizkuntza ofizialetan jarduteko gaitasuna aitortzen zaie; hortaz, hizkuntza batean zein bestean erantzungo diote lanari, kasu bakoitzean, lan-beharkizunen arabera”. Halaber, errespetatu behar da Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako Akordioa (2006ko otsailaren 28an), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko, bere erakunde autonomoetako eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako administrazio-kontratu en egikaritzan bete beharreko hizkuntza-baldintzei buruzkoa (18 art.).

IV. Plangintzaldiaren helburua: euskara ere lan-hizkuntza normala bilakatzea; esan nahi baita, bihar-etziko planen xedea ez da izango euskararen presentzia bermatzea, zeren hori, itzulpenaren makulua erabilita bada ere, dagoeneko ziurtatuta dago neurri handi batean; hurrengo plangintzaldiko helmuga izango da Administrazioan bi hizkuntzen erabileran berdintasunerantz pauso eraginkorrak ematea.

Adierazi beharra dago sozietate publikoek, eta Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen menpe dauden zuzenbide pribatuko erakunde publikoek zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, erabiltzailearekiko harreman zuzena dakarten zerbitzuetan euskara eta gaztelaniaren erabilera bermatu beharko dutela.

Bestalde, ezin dugu ahantzi, 86/1997 Dekretuak, bere lehen xedapen gehigarrian aurreikusitakoari jarraiki, plangintza orokorretik at geratu direla (euren izaera zehatza eta berezitasunak direla medio) osasun-arloa (22.500), Ertzaintza (7.500) eta unibertsitate-mailakoa ez den irakaskuntza-arloko irakasleak (23.000). Hain zuzen, azken kasu honetan, 47/1993 Dekretuak, martxoaren 9koak, irakaspostuetarako hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak zehazteko irizpideak finkatzen ditu, baita euren salbuespen araubidea eta euskalduntze-plangintza ere. Halaber, aipatu Dekretuan, hizkuntza-eskakizun bi soilik dituen sistema taiutzen da: honetara, 1 hizkuntza- eskakizuna euskarako edo euskaraz eskolik ematen ez duten irakasleei ezartzen zaie eta gurasoekin zein ikasleekin euskaraz komunikatzeko gaitasuna ematen die; 2 hizkuntza-eskakizunarekin ordea, eskolak euskaraz eman ditzakete. Uztailearen 28ko 197/1998 Dekretuko 26. artikulua, ostera, irakasleen hizkuntza-gaitasunari buruzkoa da eta irakasle berriek Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan eskolak emateko gai izan behar dutela xedatzen du^{vii}.

Ertzaintzari dagokionez, otsailaren 24ko 30/1998 Dekretuak arlo horren hizkuntza- normalizaziorako prozesua arautzen du, eta bere helburua da, ertzainak batik bat euskararen ahozko ulermenean trebatzea. Kontuan izan behar da, ertzainen hautaketan, heziketa-ikastaroetarako aukera izateko garaian ez zaiela euskara inolako mailatan jakitea eskatu, nahiz eta azkeneko promozioek aipatu ikastaroetan jaso duten gutxieneko hizkuntza-trebakuntza.

Osasun-arloaren plangintzan ostera, ekainaren 26ko 8/1997 Legeak, euskal osasungintzaren antolaketari buruzkoak, zera xedatzen du: euskal osasun-zerbitzuak —Osakidetzak—, lanpostuak hornitu eta langileak hautatzeko prozesuetan, funtzio publikoaren legedian aurreikusitako arauak ezarriko dituela, euskararen ezagutza merezimendu gisa baloratuko. Gerora, martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak garatzen du, euskararen erabileraren normalizazioa Osakidetzan.

Horrenbestez, adierazi beharra dago sozietate publikoek, eta Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen menpe dauden zuzenbide pribatuko erakunde publikoek zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, erabiltzailearekiko harreman zuzena dakarten zerbitzuetan euskara eta gaztelaniaren erabilera bermatu beharko dutela. Halaber, kontratazioen alorrean, erabiltzailearekin harreman zuzena duten eta hirugarren batzuk gauzatzen dituzten zerbitzu publikoak, herritarrei dagokion Administrazioari exijitu dakioken hizkuntz baldintza berberetan emango zaizkiela bermatu beharra dago.

Euskal Herrian kokatuta dagoen Estatuko Administrazioari dagokionez, bertan ez da jadanik inolako hizkuntz plangintzarik abian jarri Erkidegoko berezko hizkuntza erabili nahi dutenen hizkuntz eskubideak bermatu ahal izateko. Honetara, berriki, Europako Kontseiluaren Ministroen Batzordeak 2008ko abenduaren 10ean onartutako Gomendioak^s

espainiar agintariei aholkatzen die, “Kartako 10 art.ren aplikazioak ukitzen dituen Autonomia Erkidegoetan kokatuta dagoen Estatuko Administrazioan, bertako langileei bideratutako kontratazio, karrera eta heziketa-programak aztertzea, langile kopuru aproposak dagokion hizkuntzaren ezaguera praktikoa eduki dezala bermatzearen; orobat aholkatzen die, “Estatuko zerbitzu publiko guztietan hizkuntza erregionalen edo gutxituen presentzia ziurta dezatela”⁹.

Bestalde, aipamen berezia egin behar diogu Justizia-Administrazioari. Izan ere, epaile zein magistratu-lanpostuetan, printzipioz, euskara lehentasunezko meritutzat jo beharko litzateke (EHAE 35.1 art.). Aitzitik, Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko presidentearen izendapenarekin gertatutakoa ikus daiteke 2006ko maiatzaren 31ko Auzitegi Gorenaren Epaiari¹⁰. Arlo honetan ere kontutan hartu beharra dago, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak, 2005eko irailaren 21ean onartutako Gomendioan, zera aholkatzen diela espainiar agintariei, Autonomia Erkidegoetan kokatutako Justizia-Administrazioari buruz Kartako 9 art.ak ezarritakoarekin bat: “jasotako konpromisoak ziurtatzearen, behar adina neurri juridiko zein praktikoa har ditzatela, langile kopuru aproposak dagokion hizkuntzaren ezaguera praktikoa eduki dezala bereziki bermatzearen”¹¹. Orobat, arestian aipatu 2008ko abenduaren 10eko Gomendioak ildo beretik tinko darrai, espainiar agintariei aholkatzen dienean: “behar adina neurri juridiko zein praktikoa har ditzatela, Kartako 9 art.ren aplikazioak ukitzen dituen Autonomia Erkidegoetan kokatuta dagoen Justizia-Administrazioan, langile kopuru aproposak dagokion hizkuntzaren ezaguera praktikoa eduki dezala bermatzearen”¹².

Gainerakoan, Eusko Jaurlaritzak, berriki onartu du (2008ko uztailearen 29an), Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia-Administrazioan hizkuntza-normalizazio prozesua arautzen duen 152/2008 Dekretua. Aipatu arauan justizia-Administrazioari buruz hizkuntza-eskakizunak esleitzea agintzen da, hizkuntza-ondorioei begira unitate mota ezberdinak zehazten dira, hizkuntzan trebatzeko ikastaroak antolatzen dira, baita euskara erabiltzeko programak ere, organo zein zerbitzu judizialean eta fiskaltzatan.

Kontsumitzaileak babesten dituen eremuari dagokionez, abenduaren 22ko 6/2003 Legeak, kontsumitzaileen zein erabiltzaileen Estatutua arautzen du, honako eskubidea aitortzen dielarik: “Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan kokatzen diren enpresa edo establezimenduekin dituzten harremanetan, ofizialak diren bi hizkuntzetako edozein erabiltzekoa”. Honetara, aipatu Legeak xedatzen du, enpresa eta establezimendu horiek, bi hizkuntza ofizialeko edozein erabiltzen dutela ere, zerbitzu egokia eman beharko dietela (37.b art.). Gerora, uztailearen 1eko 123/2008 Dekretuak, erabiltzaileen zein kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideei buruzkoak zehazten ditu, jendeari begirako enpresen, erakundearen eta establezimenduen hizkuntza-betebeharrak. Alabaina,

Kontutan hartu beharra dago, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak, 2005eko irailaren 21ean onartutako Gomendioan, zera aholkatzen diela espainiar agintariei, Autonomia Erkidegoetan kokatutako Justizia-Administrazioari buruz Kartako 9 art.ak ezarritakoarekin bat: “jasotako konpromisoak ziurtatzearen, behar adina neurri juridiko zein praktikoa har ditzatela.

Hizkuntza-normalizaziori buruzko laburpen hau amaitzeko aipatu beharra dago pribatuki betetzen diren funtzio publikoetan, ez sarreran ez eta horniketan ere, ez dela euskara kontuan hartzen —besteak beste, lan horiek betetzen dituztenak notarioak, jabetza eta merkataritza erregistrazioak, merkataritzako korredoreak, portuetako praktikoak eta jabetza industrialeko agenteak dira—. Kasu honetan ere, guztiz zentzuzkoa eta arrazoizkoa dirudi gehiengo euskalduna duten zonaldeetan euren harremana euskaraz bideratu nahi dutenen hizkuntz eskubideak bermatzea, Erkidego osoan gaztelania darabiltenei bermatzen zaizkien modura.

Dekretuaren norainokoa, nahita, mugatua da; izan ere, kontsumo-harreman jakin batzuk soilik hartzen ditu bere eraginpean. Honela, Dekretutik at geratu dira kontsumo-arloko beste hainbat harreman, gehienbat merkataritza txikian eta mikroenpresetan biltzen direnak izanik.

Bestalde, uztailearen 29ko 150/2008 Dekretuak, Elebide, hizkuntza eskubideak bermatzeko zerbitzua sortzen du, halaber, bere aurrean, kontsultak, iradokizunak nahiz kexak bideratzeko erregulazioa ezarriz. Elebideren zereginak honakoak izango dira: hizkuntza eskubideen gaineko sentikortasuna sustatzea; hala eskatzen duten herritarrei, hizkuntza eskubideen babesari buruzko informazioa eta aholkularitza ematea; eta lankidetzak eskaintzea instituzio zein erakundeei, aipatutako eskubideek bete daitezten. Elebidek, bere jardueran, oinarritzat hartuko ditu indarrean dagoen araudian aitortzen diren hizkuntza eskubideak.

Hizkuntza-normalizaziori buruzko laburpen hau amaitzeko aipatu beharra dago pribatuki betetzen diren funtzio publikoetan, ez sarreran ez eta horniketan ere, ez dela euskara kontuan hartzen —besteak beste, lan horiek betetzen dituztenak notarioak, jabetza eta merkataritza erregistrazioak, merkataritzako korredoreak, portuetako praktikoak eta jabetza industrialeko agenteak dira—. Kasu honetan ere, guztiz zentzuzkoa eta arrazoizkoa dirudi gehiengo euskalduna duten zonaldeetan euren harremana euskaraz bideratu nahi dutenen hizkuntz eskubideak bermatzea, Erkidego osoan gaztelania darabiltenei bermatzen zaizkien modura. Hone-tara, gogora ekarri behar dugu, 2/2006 Lege Organikoak, Kataluniako Estatutu berria onartzen duenak, honakoa xedatzen duela: Katalunian, magistratu, epaile edo fiskal-lanpostu bat bete nahi duenak, katalanaren ezagutza egokia eta nahikoa egiaztatu beharko duela, hiritarren hizkuntza-eskubideak eraginkorrak izan daitezten. Berbera galdatzen zaie, orobat, idazkari judizialei baita justizia-Administrazioan jarduten duten gainerako langileei (102 art.). Hizkuntzaren behar adina ezagutza izatea zehazki eta bereziki baloratuko da gainera leku-aldatzeko lehiaketatan lanpostu bat lortu ahal izateko (102.3 art.). Berebat, notario zein erregistrazio-lanpostuak (jabegokoak, zibilak edo merkataritzakoak) hornitu ahal izateko, katalanaren ezagutza egiaztatzea beharrezkoa izango da (147.3 art.).

III. EUSKARAREN OFIZIALTASUNA NAFARROAN

Nafarroako Foru Erregimena Birrezarri eta Hobetzeko Lege Organikoak (NFBHLO) 9 art.an zera xedatzen du: “gaztelera, Nafarroako hizkuntza ofiziala da” eta “euskara ofiziala izango da ere Nafarroako euskal hiztunen eremuetan”. Halaber, honakoa gehitzen du: “foru-lege batek eremu horiek zehaztuko ditu, euskararen erabilera ofiziala erregulatuko du eta, Estatuko legedi orokorraren esparruan, euskararen irakaskuntza arautuko du”.

Ondorioz, NFBHLOrekin bat, badirudi euskararen ofizialtasuna Nafarroan, soilik, “euskal hiztunen eremuetara” mugatzen dela. Aitzitik,

aipatu Legeak ez du zehazten zeintzuk diren eremu horiek, eurak finkatzea etorkizuneko Foru-Lege baten esku uzten bada ere. Foru-Lege honi, hain zuzen, esleitzen zaio euskararen erabilera ofiziala erregulatzeko eginkizuna. Honetara, uka ezina da 18/1986 Foru Legetaz ari garela, bertan, hitzez hitz, “euskal hiztunen eremuei” aipamen egiten ez zaien arren.

Euskarari buruzko Foru Legea aztertu aurretik, lehenik eta behin mahai-gainera daitekeen arazoetako bat honakoa da: Konstituzioko 3.2 art.ak —xedatzen duenean “gainerako hizkuntza espainiarrak ere ofizialak izango dira dagokien Autonomia Erkidegoan, bertako Estatutuen arabera”— ahalbidetzen ote duen Foru Erkidegoko zati batera soilik mugatzea hizkuntza autonomikoaren ofizialtasuna. Gure aburuz, ikuspuntu juridikotik, hori egiteko aukera ematen du Konstituzioko 3.2 art.ak; balizko etorkizun bati begira ordea, gerta liteke Foru Parlamentuak “euskal hiztunen eremuak” Foru Erkidego osora hedatzen direla adieraztea. Bada, kasu honetan, NFBHLO berberekin, euskararen ofizialtasuna Nafarroa osora zabal liteke. Horretarako Foru Parlamentuan 26 boto lortzea aski izango litzatekeela esan beharra dago ere —jakina, adostasun handiagorik lortu ezean—; alegia, NFBHLOak galdatzen duen bezalaxe, erabateko gehiengoaz Lege bat onartzea beharrezkoa izango litzateke.

Honetara, ezin dugu ahaztu Nafarroako Parlamentuak, 1980ko azaroaren 3an dagoeneko deklaratu zuela euskararen ofizialtasuna Foru Erkidego osora hedatzen zela, ondokoa xedatuz: “1. Gaztelania eta euskara Nafarroako hizkuntza ofizialak dira. 2. Printzipio hori Nafarroako Foru Erregimena Birrezarri eta Hobetzeko Oinarriei erantsiko zaie eta Foru Erkidegoak eskuduntza osoa izango du Lege bidez erregulatzeko”.

Nafarroako errealitate soziolinguistikoa aintzat hartzen badugu, zalantza izpirik gabe, Foru Erkidego osoan euskara ofiziala dela deklaratzeko sinbolikoki esanguratsua izango litzateke. Alabaina, ikuspuntu juridikotik, deklarazio horrek makina bat modulazio beharko luke (ziurrenik, Valentziako Autonomia Erkidegoan, irakaskuntzaren eremuan dauden modulazioen antzekoak, eta Administrazioak euskaraz emaniko zerbitzuak, zuzenean, errealitate soziolinguistikoaren menpe egongo lirateke). Bada, honek gutxi aldatuko litzuke egungo arau-markoaren materialtasuna zein aukerak. Hortaz, alde batera utzirik euskararen ofizialtasunaren inguruko eztabaida interesgarri hori —baina antzua ere izan litekeena—, une honetantxe, ikuspuntu praktikoa batetik garrantzitsua zera litzateke: Nafarroan, euskaldunen hizkuntza-eskubideen berme maila zein den zehaztea. Edozein kasutan ere, argi izan behar duguna da, NFBHLO behar adina malgua dela, etorkizunean, Foru Erkidegoa osatzen duten hizkuntza-lurralde ezberdinak “euskal hiztunen eremutat” deklaratu ahal izateko.

Gaur egun, euskarari buruzkoa Foru Legeak (abendua 15eko 18/1986 zki.dunak alegia) Nafarroa hiru hizkuntza-eremutan zatitzen du: “euskalduna” —“euskal hiztuna” esan nahi ez duena eta eremu

Mahai-gainera daitekeen arazoetako bat honakoa da: Konstituzioko 3.2 art.ak —xedatzen duenean “gainerako hizkuntza espainiarrak ere ofizialak izango dira dagokien Autonomia Erkidegoan, bertako Estatutuen arabera” — ahalbidetzen ote duen Foru Erkidegoko zati batera soilik mugatzea hizkuntza autonomikoaren ofizialtasuna.

**Euskarari buruzko Foru
Legeak eremu euskalduna
deiturikoan, hiritar
guztiei aitortzen die,
botere publikoekiko
harremanetan eurak
hautatako hizkuntza
erabiltzeko eskubidea
(euskara zein gaztelania,
alegia), baita modu
berean harrera
izatekoa ere.**

bakarra besarkatzen duena, NFBHLOk “eremuak” direla xedatzen duen arren—; bigarrena ostera, eremu “mistoa” da, alegia, Nafarroako euskal hiztun gehien biltzen duena; eta, hirugarrena eta azkena, “ez-euskalduna” deituriko eremua, non “euskal hiztunak” ere badauden, baina gutxiengo bat diren gizartean.

Alabaina, sarritan ahazten dugu, Nafarroako euskararen Legea alderdi Sozialistak proposatuta onartu zela, eta lege-egitasmoaren osotasunerako hiru zuzenketa aurkeztu zirela. Lehenak, Nafarroa osoan euskararen ofizialtasuna deklaratzeko zuzenketa (Euskal Jeltzaleen parlamentu-taldeak aurkeztu zuena). Gainerako bi zuzenketa arabera ordea, batako zuzenketa egitasmoa ez zetozeela bat NFBHLOekin (talde Popularraren zuzenketa, alegia). Besteak berriz (UPNko parlamentu-taldearenak), zera esaten zuten: NFBHLOk xedatzen zutenari ez ziola men egiten. Izan ere, deitura desegokia zerabilen; hizkuntzaren izendapenari ez ziztaion egokitzen; zehaztasunik ez zuten euskararen ofizialtasuna nora mugatzen zen finkatzeari zegokionean, edo euskararen erabilera ofiziala iradokitzen zuten euskal hiztunen eremuetatik harago; 13/1982 Legeak aurreikusitakoarekin bat ez zetozen “eremu euskalduna” eta “mistoa” finkatzen zituen; hizkuntza hautatzeko borondate printzipioa ez zuten behar adina bermatzen; eta horrenbestez, errealitate soziolinguistikotik harantzago, ikasketa-planetan euskara sartzeko xedatzen zuten.

Dakigun bezala, lege-egitasmoaren osotasunerako hiru zuzenketa horiek ez ziren aurrera atera eta Legea erabateko gehiengoz onartu zen. Aitzitik, ez UPNk ez eta euskal jeltzaleek ere, ez zuten aldeko botorik eman (eta HBko parlamentu-taldeak ez zuten lege-egitasmoaren eztabaidan parte hartu ez eta onarpen-prozesuan ere).

Horrenbestez, zein da euskarari buruzko Foru Legearen edukia? Bere “Xedapen Orokorretan” ezartzen da, Legearen helburua dela “euskararen erabilera normala eta ofiziala arautzea gizarte-elkarbizitzaren alorrean nahiz irakaskuntzan”. Halaber, Legearen oinarritzko xedeen artean, ondokoak azpimarra daitezke: “a) herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta eraginkor bihurtzeko tresnak zehaztea; b) Nafarroan euskararen berreskurapena eta garapena zaintzea, bere erabilpena sustatzeko neurriak adieraziz; eta c) euskararen erabilpena eta irakaskuntza bermatzea, borondatezkoatasun, mailakatze eta begirune irizpideei jarraiki, hau guztia Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren arabera”. Berebat, arestian esan bezala, “botere publikoek behar adina neurri hartuko dute, hizkuntza-arrazoia direla medio, hiritarrak diskriminatzea eragoztearren”.

Zehazki, euskarari buruzko Foru Legeak eremu euskalduna deiturikoan, hiritar guztiei aitortzen die, botere publikoekiko harremanetan eurak hautatako hizkuntza erabiltzeko eskubidea (euskara zein gaztelania, alegia), baita modu berean harrera izatekoa ere. Honetara, Administrazio publikoek eta izaera publikoa daukaten enpresek mailaz mailako treba-

kuntza sustatuko dute, eremu euskaldunean lan egiten duten langileek euskara erabil dezaten. Orobat, Administrazio bakoitzak zehaztuko du zein lanpostutarako izanen den nahitaezkoa euskaraz jakitea, gainerakontzat, kontuan hartzeko merezimendutzat joaz. Bestalde, unibertsitate-mailakoa ez den hezkuntzan derrigorrezkoa izango da euskararen eta gaztelaniaren irakaskuntza, ikasle orok, oinarrizko eskolatzearen bukaeran bi hizkuntzetan gaitasun maila nahikoa frogatu ahal izan dezan.

Bigarrenez, *eremu mistoa* deiturikoari dagokionez —arestian aipatu parlamentu-izapidean, talde Popularrak eta UPNk onartzen ez duten eremua NFBHLOri jarraiki— euskarari buruzko Foru Legeak hiritar guztiei aitortzen die “euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea, Nafarroako Administrazio publikoei zuzentzen zaizkienean”. Halaber, eskubide horren egikaritzea bermatzeko, aipatu Administrazioek honakoa egin ahal izango dute: a) “urteroko lanpostuen eskaintza publikoan zein lanpostutarako izanen den nahitaezkoa euskaraz jakitea zehaztu; b) gainerako lanpostuetara iristeko deialdietan euskararen ezagupena merezimendutzat baloratu”. Irakaskuntza arloari dagokionez, “euskara bertan sartzea piskanaka, mailaz maila eta nahikotasunez egingen da, ikastetxeetan, eskatzen dutenentzako, euskaraz emaniko irakaskuntza-ereduak sortuz”. Orobat, “unibertsitate-mailakoa ez den hezkuntzan, euskara irakatsiko zaie nahi duten ikasleei, oinarrizko eskolatzearen bukaeran euskararen ezagupen nahikoa izan dezaten”.

Hirugarrenez eta azkenik, *eremu ez-euskalduna* deiturikoan “hiritarrei aitortzen zaie Nafarroako Administrazio publikoetara euskaraz zuzentzeko eskubidea”. Aitzitik, aipatu Administrazioek “interesatuei gaztelaniarako itzulpena eska diezaiekete”, edo, bere kasuan, itzulpen zerbitzu ofizialak erabil ditzakete (euskaratik gaztelaniara itzultzeko, alegia); hain zuzen, itzulpen zerbitzuok Nafarroako Gobernuak sortu behar ditu administrazio-unitate bezala. Bestalde, irakaskuntza arloari dagokionez, euskarari buruzko Foru Legeak xedatzen du, eremu ez-euskaldun honetan euskararen irakaskuntza bultzatuko dela, eta hala behar izanez gero, botere publikoek osoki edo partzialki finantziatuko dutela, sustapen nahiz promozio irizpideei jarraiki baita eskarien arabera ere.

Jakina, era zilegian eztabaida daiteke, euskarari buruzko Foru Legeak proposatzen duen zatiketa hizkuntza-eremuei dagokienez —baita eremu bakoitzean aitortzen dituen hizkuntza-eskubideei dagokienean ere— NFBHLOko estatutu-aurreikuspenei eta Konstituzioari egokitzen ote zaizkion. Edozein kasutan, kontuan izan behar dena da, etorkizunean, euskarari buruzko Foru Legearen edukia alda daitekeela Parlamentuko gehiengoan arabera. Aitzitik, juridikoki egin ezin zitekeena —372/2000 Foru Dekretua eta bere hiru garapen-planak onartu zirenean—, eta gaur egun, egin ezin daitekeena —otsailaren 10eko 29/2003 Foru Dekretua indarrean egon arren—, zera da: euskarari buruzko Foru Legea garatzen duen Dekretu bat *per saltum* NFBHLOri lotu. Halaber, ezin da elaboratu

***Eremu mistoa
deiturikoari dagokionez
—arestian aipatu
parlamentu-izapidean,
talde Popularrak eta
UPNk onartzen ez duten
eremua NFBHLOri
jarraiki— euskarari
buruzko Foru Legeak
hiritar guztiei aitortzen
die “euskara nahiz
gaztelania erabiltzeko
eskubidea, Nafarroako
Administrazio publikoei
zuzentzen
zaizkienean”.***

**Eremu ez-euskalduna
deiturikoan “hiritarrei
aitortzen zaie Nafarroako
Administrazio
publikoetara euskaraz
zuzentzeko eskubidea”.**

euskarari buruzko Foru Legearen edukietara egokitzen ez den erregelamendurik. Izan ere, gogora ekarri behar dugu, arestian aipatu 372/2000 Foru Dekretua eta bere hiru garapen-planak onartzearekin batera, UPNk, euskarari buruzko Foru Legea onartzeko burututako parlamentu-etzabaidetan defendatu zituen tesiak ezarri nahi izan zituela; eta ostera, bai Foru Dekretua baita hiru garapen-planak ere, osotasunean deusezak zirela deklaratu zuela Auzitegi Gorenak¹³.

Horrenbestez, gaur egun oraindik, ikuspuntu material batetik, bi eztabaida juridikok bizirik diraute: lehena, hizkuntza-eskubideen hedaduraren inguruan dagoena, batik bat, eremu mistoan (bertan bizi delarik euskal hiztun gehien); eta aurrekoari lotuta, bigarrena, eremu mistoan euskara ofiziala ote denari buruzkoa (izan ere, badirudi, eremu euskalduneari euskararen ofizialtasunaren inguruan zalantzarik ez dagoela). Bada, euskarari buruzko Foru Legearen hitzei erreparatzen badiegu —baita aipatu Legearen elaborazio-prozesuan parlamentarioek eginiko parte-hartzei ere— antzeman daiteke, eremu mistoan dagoen hizkuntza-ereduak, eremu euskalduneari eta ez-euskalduneari dauden ereduak arteko *tertium genus* bat nahi duela izan. Berebat, eremu mistoan, formalki, hizkuntzen ofizialtasun bikoitza dagoela errefusa liteke; aitzitik, ezin uka daiteke, materialki bederen, euskararen erabilera ofizialak daudenik, bai irakaskuntzan baita euskarari buruzko Foru Legeak aurreikusten duen aukeran ere, hain zuzen, eremu mistoan hiritarrek Administrazioetara euskaraz zuzen daitezen edo Administrazioekiko harremanetan euskara erabil dezaten —balio eta eraginkortasun osoarekin—. Orobat, aipatu eskubidearen erabilera bermatzeko, Administrazioek zehaztu beharko lukete zein lanpostutarako izanen den nahitaezkoa euskaraz jakitea, eta zeinetan kontuan hartzeko merezimendutzat joko den. Ondorioz, ikuspuntu honetatik, zuzenbide osoz deuseza izango litzateke, euskarari buruzko Foru Legea guztiz ezeztatuz, eremu mistoan, arestian aipatu *tertium genus* hori ezabatuko lukeen edo euskararen erabilera ofizial horiek eragotziko lituzkeen edozein Foru Dekretu —edo bera garatzen duen edozein plan—.

Egun, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen eta indarrean den otsailaren 10eko 29/2003 Foru Dekretuari dagokionez, gogora ekarri behar dugu, 2005eko abenduaren 9an, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak emaniko epai batean¹⁴, deusez deklaratu zituela aipatu Foru Dekretuko 15.1 art., 18.3 art., 21.1 art.ko lehen lerroaldea eta 23.1 art; izan ere, funtsean, eremu mistoko euskal hiztunen hizkuntza-eskubideak urratzen direla ulertzen zuen. Aipatu beharra dago ordea, epai hori oraindik ez dela irmoa, Foru Dekretuaren aurka jarritako kasazio-helegiteak ez baitira oraindik ebatzi. Nolanahi ere, honetara, Auzitegi Gorenaren 2006ko martxoaren 23ko Autoak¹⁵, lehen auzialdian, helegilearen kasazio-helegitearen prestaketa mugatzen du, ez delako ageri “89.2 art.ak galdatutako gailentasun judiziorik; izan ere, urra-

tutzat jotzen diren Estatuko arau zehatzak edo europar Zuzenbidekoak aipatzen diren arren, ez da inolaz ere justifikatzen eurak urratzea erabakigarria izan denik eta ondorioz, helegindako epaitzan eragina izan duenik”.

Hain zuzen ere, ustez urratutzat jotzen diren Zuzenbideko arauon artean Hizkuntza Erregionalen edo Gutxituen Europako Karta legoke. Dakigun bezala, Espainiak 2001 urtean berretsi zuen Karta eta hortaz, Nafarroan ere guztiz aplikagarria litzateke orduz geroztik. Alabaina, eztabaidatzen den arazoa honakoa da: berretsitako xedapen guztiak — batik bat III. atala, I. eta II. atalen inguruko eztabaidarik ez baitago — eremu mistoan indarrean dauden eta aplika daitezkeen. Izan ere, kontuan hartu behar dugu, Nafarroako Foru Gobernua, hain zuzen, aurkako tesiarren aldekoa dela, nahiz eta Europako Kontseiluko Ministroen Batzordean (Karta aplikatzen ote den egiaztatzeko eginiko segimendua dela-eta) 2005eko irailaren 21ean Espainiari zuzendutako Gomendio bat onartu zuen. Honetara, Gomendioak bosgarren puntuan zera adierazten du esplizituki: “Nafarroako legediari men eginez, Kartako III. Atalak eremu mistoan euskarari eskaintzen dion babesa era egokian ezartzeko aukera aurreikusi behar dela”¹⁶. Bestalde, laugarren puntuan zera adierazten du: “neurriak hartu behar direla euskararen erabilera sustatzearren, Euskal herriko hedabide elektroniko pribatuetan, baita orokorrean Nafarroako irrati zein telebista saioetan ere”¹⁷.

Halaber, Kartari buruzko Adituen Batzordearen Txostenak, 2008ko abenduaren 11ean argitara emanikoa, Nafarroan Karta aplikatzeari dagokionez zehazki, zera aholkatzen die espainiar agintariei: “marko juridikoa aldatzea, argi gera dadin, arlo judizial penaleko, zibileko eta administratiboko Nafarroako agintariak, alderdi batek hala eskatuta, prozesu judizialak euskaraz burutuko dituztela; akusatuari euskara erabiltzeko eskubidea formalki bermatzea, gaztelera menperatu arren; behar adina neurri hartzea, Kartako 9 art.dela-eta, espainiar Gobernuak hartutako konpromisoekin bat, zera bermatzeko: hala dagokionean, prozesuetako alderdiei informatuko zaiela Nafarroako agintariak prozesuak euskaraz burutzeko daukaten betebeharrari buruz, alderdietako batek hala eskatuz gero; behar adina neurri hartzea, Nafarroako auzitegietan euskara lan-hizkuntza bezala erabil dezaketen Justizia-Administrazioko langile kopurua maila guztietan areagotzeko, eta bereziki, epaile nahiz fiskal kopurua handitzeko; Nafarroako Justizia-Administrazioko langileei zein abokatuei zuzendutako heziketa-programak ezartzea”¹⁸.

Berebat, Kartari Buruzko Adituen Batzordeak zera aholkatzen die espainiar agintariei bere Txostenean: “Estatuko Administrazio Publikoan dagoen karrera nahiz heziketa-egitura aztertzea, zera bermatzearren: Nafarroan kokatuta dagoen Estatuko Administrazioko langile kopuru a proposak euskara behar adina ezagutzen duela, lan-hizkuntza bezala erabiltzeko. Eta behar adina neurri hartzea, Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioaren baitan, euskal hiztuna den langile kopurua areagotzearren”¹⁹.

Kartari Buruzko Adituen Batzordeak zera aholkatzen die espainiar agintariei bere Txostenean: “Estatuko Administrazio Publikoan dagoen karrera nahiz heziketa-egitura aztertzea, zera bermatzearren: Nafarroan kokatuta dagoen Estatuko Administrazioko langile kopuru a proposak euskara behar adina ezagutzen duela, lan-hizkuntza bezala erabiltzeko. Eta behar adina neurri hartzea, Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioaren baitan, euskal hiztuna den langile kopurua areagotzearren” .

Ipar Euskal Herrian euskara ez da ofiziala; soilik frantsesa da ofiziala. Halere, aipatu beharra dago, frantziar Konstituzioan, lehen aldiz, 2008ko uztailaren 23ko "2008-724 zki.dun Loi constitutionnelle"k, 75.1 artikulua berria gehitzen diola testuari, zera xedatuz: "Les langues régionales appartiennent au patrimoine de la France".

Hedabideei dagokionez ostera, Kartari Buruzko Adituen Batzordeak zera aholkatzen die agintari eskudunei: "Nafarroan, saioak euskaraz emititzen dituen irrati pribatu bat sustatzea edo mantentzea²⁰; baita saioak euskaraz emititzen dituen telebista-kate pribatu bat gutxienez sortzea edo mantentzea ere²¹.

Azkenik, egungo Foru Gobernuak, Nafarroako eremu mistoan euskararen ofizialtasunik inolaz ere aitortzen ez duela aditzera ematen duen makina bat adibideren artean, honakoa gogora ekarri behar dugu: 2007ko apirilaren 10ean, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak²², otsailaren 8ko 19/2006 Foru Aginduaren aurka jarritako administrazioarekiko auzi-helegitea baietsi zuen. Izan ere, Nafarroako Gobernuak komunikazioen, garraioen eta lan publikoen kontseilariak emaniko aipatu Aginduak atzera bota zuen lehendik, abuztuaren 16ko 735/2005 Ebazpenaren aurka jarritako gora egiteko helegitea. Eta lan publikoen zuzendari orokorrak emaniko Ebazpen honek halaber, atzera bota zuen lehenago, euskal toponimia ere agertzearen, Zizur Nagusitik igarotzen den 111-N ren zatiko bide-seinalea alda zedin eginiko eskaera. Bada, Nafarroako Justizi Auzitegi Nagusiaren epaiak aipatu administrazioarekiko auzi-helegitea baiesten du, azaroaren 9ko 368/1992 Foru Dekretuaren artikulua bakarrean oinarrituz. Ezen, xedapen honi jarraiki, "Cizur Mayorren ohiko deituraren izendapen ofizialak Zizur Mayor eta Zizur Nagusia dira. Eta deitura horiek, ondorio guztietarako, legezkoak izanen dira".

IV. EUSKALDUNEN HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK IPAR EUSKAL HERRIAN

Ipar Euskal Herrian euskara ez da ofiziala; soilik frantsesa da ofiziala (1992ko ekainaren 25eko "92-554 zki.dun Loi constitutionnelle" indarrean sartzen den unetik; izan ere, aipatu Legeak, 1958ko urriaren 4ko Konstituzioko 2 art.ari ondoko xedapena gehitzen dio: "*La langue de la République est le français*"). Halere, aipatu beharra dago, frantziar Konstituzioan, lehen aldiz, 2008ko uztailaren 23ko "2008-724 zki.dun Loi constitutionnelle"k, 75.1 artikulua berria gehitzen diola testuari, zera xedatuz: "*Les langues régionales appartiennent au patrimoine de la France*".

Zeintzuk dira bada, Ipar Euskal Herrian euskaldun bati aitortzen zaizkion hizkuntza-eskubideak? Honetara, lehenik eta behin aipatu behar dugun Legea, irakaskuntza arlokoa da; hots, 1975eko uztailaren 11ko 75-620 zki.duna da (Loi Habi). Aipatu Legeak hezkuntza arautzen du, bere 12 art.an zera xedatuz: "*Un enseignement des langues et des cultures régionales peut être dispensé tout au long de la scolarité*". Hortaz, xedapen honetan oinarrituz, beti ere borondate printzipioari jarraiki, irakaskuntza publikoaren eremuan euskara eta euskaraz irakats daiteke. Hain zuzen, 1995eko apirilaren 7ko 95-086 zki.dun Zirkularrak, Frantziako hizkuntzen ondarea babestearren, honakoa ezartzen du: "*Chaque enseignant, lors-*

que les activités de la classe s’y prêteront, fera découvrir à ses élèves les richesses du patrimoine culturel et linguistique, il les amènera à appréhender le fait régional non comme une opposition entre des particularismes locaux, mais comme une composante de la culture nationale”. Era honetan beraz, astean hiru ordutan zehar, euskaraz irakastea baimentzen da (Ipar Euskal Herriko ikaslegoaren %11ak egiten duena), baita hezkuntza elebiduna jasotzea ere, gurasoek hala eskatuz gero (%11). Irakaskuntza publikotik at, Seasakak burutzen duen euskarazko irakaskuntza topa dezakegu (%5). Irakaskuntza hori ordea, ofizialki pribatuak diren eskoletan gauzatzen da. Hain zuzen, eskola pribatu hauek frantziar Estatuari elkartuta daude eta hitzarmenen baten bitartez onartzen zaie euren berezitasuna.

Administrazio publikoaren esparruan ordea, euskarak ez du inongo errekonozimendu ofizialik. Aitzitik, udal-organoetan euskara erabil daiteke eta funtzionarioek bizilagunekiko harremanetan erabil dezakete; jakina, ez eskubide bezala, baizik eta erabilera soil edo ohiturazkoa bailitzan. Halaber, ugariak dira Frantzian euskaraz agertzen diren horma-irudiak, argibideak edo herri-deiturak. Baina hauek guztiak ez dira agertzen eskubide baten adierazpen juridiko bezala; egitez, hizkuntza bat bizirik dagoenaren adierazle bezala baizik. Honetara, gogora ekarri behar dugu 1994ko abuztuaren 4ko Legea (Loi Toubon), frantsesaren erabilera arautzen duena hala erakunde ororen esparruan nola publizitate-esparruan, zera xedatuz: *“Les dispositions de la présente loi s’appliquent sans préjudice de la législation et de la réglementation relatives aux langues régionales de France et ne s’opposent pas à leur usage”*.

Justizia-Administrazioaren eremuan oster, ez dago, frantsesa hizkuntza ofizialtzat bereziki jotzen duen testu berririk. Horregatik, aipamen egiten zaio tradizionalki indarrean den 1539ko Villers-Cotterêteko Ordenantzari; izan ere, bere 110 art.an xedatzen du: *“Nous voulons d’ores en avant que tous arrêts ... et autres quelconques actes de justice ... soient prononcés, enregistrés et délivrés aux parties en langage maternel français et non autrement”*.

Hedabideetan, 1982ko uztailaren 29ko Legeak, ikus-entzuneko arloa arautzen duenak, bi ondorio garrantzitsu izan zituen erregio-hizkuntzei zegokienez. Alde batetik, irrati eta telebista zerbitzu publikoei esleitzen zien erregio-hizkuntzetako zein kulturetako adierazpenak bermatzeko zeregina (5 art.); horrek, astean zehar zenbait ordutan, aipatu hizkuntzetan saioak egitea ekarri du. Bestetik, Frantziar Estatuak irrati-difusio pribatuaren arloan zeukan monopolioa apurtu zuen eta ondorioz, Ipar Euskal Herrian Gure Irratia, Irulegiko Irratia edo Zuberoko Boza bezalako euskarazko irratia sortu ziren.

Gainerakoan, dakigun bezala, Frantzian euskararen alde juridikoki egin den ahaleginik handiena (baita gainerako erregio-hizkuntzen mesedetan ere), Hizkuntza Erregionalen edo Gutxituen Europako Kartarekin izan zen. Hain zuzen, 1999ko maiatzaren 7an, Frantziak, Kartako III. ataleko 98 proposamenetatik 39 sinatzeko hitza eman zuen. Alabaina, Fran-

Astean hiru ordutan zehar, euskaraz irakastea baimentzen da (Ipar Euskal Herriko ikaslegoaren %11ak egiten duena), baita hezkuntza elebiduna jasotzea ere, gurasoek hala eskatuz gero (%11).

**Administrazio
publikoaren esparruan
ordea, euskarak ez du
inongo errekonozimendu
ofizialik.**

tziako "Conseil Constitutionnel"ek edo Konstituzio Auzitegiak, berehala, 99-412 zki.dun Erabakia hartu zuen 1999ko ekainaren 15ean. Erabaki horretan Frantziako "Conseil Constitutionnel"ek zera ulertzen zuen: Kartak Errepublikaren zati ezintasun printzipioa urratzen zuela, baita legearen aurreko berdintasuna nahiz frantziar herriaren batasuna ere. Orobat, Frantziako erakundeen hizkuntza ofizial bakarria frantsesa dela deklaratzeko duen frantziar Konstituzioko xedapena urratzen zuela ulertzen zuen Konstituzio Auzitegiak. Hortaz, Kartaren berrespen prozesua guztiz geratuta dago.

Zehazki, Frantziako "Conseil Constitutionnel"ek, irmotasunez, Karta konstituzio kontraktatzat jotzen zuen, zera adieraziz: *"confère des droits spécifiques à des "groupes" de locuteurs de langues régionales ou minoritaires, à l'intérieur de "territoires" dans lesquels ces langues sont pratiquées, porte atteinte aux principes constitutionnels d'indivisibilité de la République, d'égalité devant la loi et d'unicité du peuple français; considérant que ces dispositions sont également contraires au premier alinéa de l'article 2 de la Constitution en ce qu'elles tendent à reconnaître un droit à pratiquer une langue autre que le français non seulement dans la "vie privée" mais également dans la "vie publique", à laquelle la Charte rattache la justice et les autorités administratives et services publics"*.

Gerora, une hartan Lehen Ministro zen Lionel Jospinek, Errepublikako Presidente zenari, Jacques Chiraci, Konstituzioa aldatzea proposatu zion, Karta berretsi ahal izateko. Prozesuak ordea, ez du aurrera egin. Eta azken berri bezala, aipatu beharra dago, 2008ko uztaillean, Konstituzioaren aldaketa burutu dela eta ondorioz, lehen aldiz, erregio-hizkuntzak Frantziako ondare gisa babesten direla. Horrenbestez, Konstituzioaren ikuspuntutik, Karta sinatzea ekar al dezake horrek? Badirudi oraindik ezinezkoa dela, bai "Conseil Constitutionnel"en argudioak aintzat hartzen baditugu, baita egun Frantziako Errepublikako Presidente den Sarkozyk, 2007ko martxoaren 9an, Caenen eginiko adierazpenak gogoan baditugu ere; hain zuzen, zera esaten baitzuen: *"Si je suis élu, je ne serai pas favorable à la Charte européenne des langues régionales, non pas parce que je conteste les langues régionales, qu'au contraire je veux soutenir et développer, mais parce que je ne veux pas que demain un juge européen ayant une expérience historique du problème des minorités différente de la nôtre puisse décider qu'une langue régionale doit être considérée comme langue de la République au même titre que le français. Car au-delà de la lettre des textes il y a la dynamique des interprétations et des jurisprudences, qui peut aller très loin. J'ai la conviction qu'en France, terre de liberté, aucune minorité n'est opprimée et qu'il n'est donc pas nécessaire de donner à des juges européens le droit de se prononcer sur un sujet qui est consubstantiel à notre pacte national et n'a absolument rien à voir avec la construction de l'Europe"*.

Nolanahi ere, azken datu bezala, aipatu gura genuke, "Conseil Constitutionnel"ek adibidez, ez duela arazo juridikorik ikusi 2004ko otsailaren

27ko 2004-192 zki.dun Lege Organikoaren 57 art. konstituzioaren kontratatzat jotzeko. Lege honek frantziar Polinesiako autonomia estatutua onartzen du. Eta zehazki, aipatu artikulua zera xedatzen du, hitzez hitz: *“Le français est la langue officielle de la Polynésie française. Son usage s’impose aux personnes morales de droit public et aux personnes de droit privé dans l’exercice d’une mission de service public ainsi qu’aux usagers dans leurs relations avec les administrations et services publics. La langue tahitienne est un élément fondamental de l’identité culturelle: ciment de cohésion sociale, moyen de communication quotidien, elle est reconnue et doit être préservée, de même que les autres langues polynésiennes, aux côtés de la langue de la République, afin de garantir la diversité culturelle qui fait la richesse de la Polynésie française. Le français, le tahitien, le marquisien, le paumotu et le mangarevien sont les langues de la Polynésie française. Les personnes physiques et morales de droit privé en usent librement dans leurs actes et conventions ; ceux-ci n’encourent aucune nullité au motif qu’ils ne sont pas rédigés dans la langue officielle. La langue tahitienne est une matière enseignée dans le cadre de l’horaire normal des écoles maternelles et primaires, dans les établissements du second degré et dans les établissements d’enseignement supérieur. Sur décision de l’assemblée de la Polynésie française, la langue tahitienne peut être remplacée dans certaines écoles ou établissements par l’une des autres langues polynésiennes. L’étude et la pédagogie de la langue et de la culture tahitiennes sont enseignées dans les établissements de formation des personnels enseignants”.*■

OHARRAK

- 1992ko ekainaren 25eko “92-554 zki.dun Loi constitutionnelle”ri jarraiki. Izan ere, 1958ko urriaren 4ko Konstituzioko 2 art.ari ondoko xedapena gehitzen dio: *“La langue de la République est le français”*. Hala ere Frantziar Konstituzioan, lehen aldiz, 2008ko uztailaren 23ko “2008-724 zki.dun Loi constitutionnelle”k, 75.1 artikulua berria gehitzen dio, zera xedatuz: *“Les langues régionales appartiennent au patrimoine de la France”*.
- EUSKO JAURLARITZA-2008-ISBN: 978-84-457-2747-8, http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/es/contenidos/libro/iv_inkesta_soziol/es_ink/iv_inkesta_soziolinguistikoa.html.
- Ikus EUSTATEk argitaratutako datuak bere web orrian: <http://www.eustat.es>.
- “Euskararen erabilera normalizatzeko plana”, IV plangintzaldia (2008-2012), 2008ko uztailaren argitaratutakoa. Dokumentua osorik eskura dago interneten, http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/es/contenidos/informacion/argitalpenak/es_6092/administrazio_arloa.html helbidean.
- 2008ko urtarrilean argitaratutakoa. Txostena interneten eskura daiteke, ondoko helbidean: http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/es/contenidos/informacion/argitalpenak/es_6092/administrazio_arloa.html.
- 2008ko uztailaren argitara emanikoak. Dokumentua ikus daiteke, http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/es/contenidos/informacion/argitalpenak/es_6092/administrazio_arloa.html helbidean.
- Bestalde, 66/2005 Dekretuak, apirilaren 5ekoa, Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezkuntza-lan-gile ez-irakasleen hizkuntz eskakizunak sortu eta arautzen ditu.
- Gomendio hau Hizkuntza Erregionalen edo Gutxituen Europako Kartak (2001eko BOEn argitara emanikoak), 16 art.an finkatuzten duen kontrol-sistematik eratorriko betebeharren artean sartzen da.
- Gomendioaren ingeleseko jatorrizko bertsoiak zera dio: *“review the recruitment, career and training*

Frantziar euskararen alde juridikoki egin den ahaleginik handiena (baita gainerako erregio-hizkuntzen mesedetan ere), Hizkuntza Erregionalen edo Gutxituen Europako Kartarekin izan zen. Hain zuzen, 1999ko maiatzaren 7an, Frantziak, Kartako III. ataleko 98 proposamenetatik 39 sinatzeko hitza eman zuen. Alabaina, Frantziako “Conseil Constitutionnel”ek edo Konstituzio Auzitegiak, berehala, 99-412 zki.dun Erabakia hartu zuen 1999ko ekainaren 15ean. Erabaki horretan Frantziako “Conseil Constitutionnel”ek zera ulertzen zuen: Kartak Errepublikaren zati ezintasun printzipioa urratzen zuela, baita legearen aurreko berdintasuna nahiz frantziar herriaren batasuna ere. Orobat, Frantziako erakundeek hizkuntza ofizial bakarra frantsesa dela deklaratzeko duen frantziar Konstituzioko xedapena urratzen zuela ulertzen zuen Konstituzio Auzitegiak. Hortaz, Kartaren berrespen prozesua guztiz geratuta dago.

schemes for the staff of the State administration offices with a view to ensuring that an adequate proportion of the staff posted in the autonomous communities have a working knowledge of the relevant languages; (...) ensure the presence of all regional or minority languages in state owned public services". Halaber, Kartari buruzko Adituen Batzordeko Txostenak, 2008ko abenduaren 11ean argitara emanikoak, bere 74. orrian, zehazki Euskal Autonomia Erkidegoari aipamen egiten dion 632. atalaren ostean, zera zehazten du: *"The Committee of Experts urges the Spanish authorities to review the career and training structure in the State public administration with a view to ensuring that an adequate proportion of the staff posted in the State administration offices located in the Basque Country have the necessary command of the Basque language to be able to use it as a working language"*.

10. Azdi. 3055. Hizkuntza Eskubideen Behatokiak helegitea jarri zuen Botere Judizialeko Lege Organikoak (341.1 art.) eta Gernikako Estatutuak (35.1 art.) xedatzen dutenari jaramonik egin gabe, euskararen ezagupena ez zelako inondik inora baloratzen. Aitzitik, Auzitegi Gorenaren epaiak ez zion legitimaziorik onartu Hizkuntza Eskubideen Behatokiari, nahiz eta Auzitegi Goreneko bost magistratuk erabaki orokorrari boto partikularra egin zioten, eta gero Behatokiak ez zuen babes helegite-rik jarri Konstituzio Auzitegiaren aurrean.

11. Ingeleseko bertsioan zera dio Gomendioak: *"take the necessary legal and practical measures needed to ensure the implementation of the undertakings under article 9 of the Charter, in particular by ensuring that an adequate proportion of the judicial staff posted in the autonomous communities concerned by the application of Article 9 of the Charter has a working knowledge of the relevant languages"*.

12. Ingeleseko bertsioan honakoa esaten du Gomendioak: *"take the necessary legal and practical measures to ensure that an adequate proportion of the judicial staff posted in the autonomous communities concerned by the application of Article 9 of the Charter has a working knowledge of the relevant languages"*. Bestalde, 2008ko abenduaren 11ean argitara emaniko Txostenean, Adituen Batzordeak zera eskatzen die espainiar agintariei, zehazki, Justizia-Administrazioari buruzkoa den Kartako 9 art. Euskal Herriaren ezarzteari dagokionez: *"marko juridikoa aldatzea, argi gera dadin, arlo judizial penaleko, zibileko eta administratiboko Euskal Herriko agintariak, alderdi batek hala eskatuta, prozesu judizialak euskaraz burutuko dituztela; behar adina neurri hartzea, Kartako 9 art.dela-eta, espainiar Gobernuak hartutako konpromisoekin bat, zera bermatzeko: hala dagokionean, prozesuetako alderdiei informatuko zaiela Euskal Herriko agintariak prozesuak euskaraz burutzeko daukaten betebeharrari buruz, alderdietako batek hala eskatuz gero; eta behar adina neurri hartzea, Euskal Herriko auzitegiatan euskara lan-hizkuntza bezala erabil dezaketzen Justizia-Administrazioari langile kopurua maila guztietan areagotzeko, eta bereziki, epaile nahiz fiskal kopurua handitzeko. Ingeleseko bertsioak zera dio: *"The Committee of Experts encourages the Spanish authorities: to amend the legal framework with a view to making it clear that the criminal, civil and administrative judicial authorities in the Basque Country will conduct the proceedings in Basque at the request of one party; to take the necessary measures to ensure, as appropriate, that the parties to a proceeding are specifically informed of the obligation of the judicial authorities in the Basque Country to conduct the proceedings in Basque if one of the parties so requests, in conformity with the undertakings entered into by Spain under Article para. 1.a.i, 1.b.i and 1.c.i of the Charter; to take the necessary measures to in crease, where appropriate, the proportion of judicial staff in the Basque Country, at all levels and particularly among judges and prosecutors, who are able to use Basque as a working language in courts"* (ikus 69 orria, 585 atalaren ondoren).*

13. Ikus Auzitegi Gorenaren ondoko Epaiak: 2006ko ekainaren 5ekoa (Azdi 3094), 2006ko ekainaren 7koa (Azdi 3444), 2007ko maiatzaren 28koa (Azdi 5395), eta 2007ko urriaren 31koa (Azdi 8714).

14. JUR 2005\50800.

15. JUR 2006\158068.

16. Ingeleseko jatorrizko bertsioak zera dio: *"consider the possibility of applying an appropriate form of Part III protection to the Basque language within the "mixed zone" as defined by the legislation of Navarra"*.

17. Ingeleseko jatorrizko bertsioak honakoa esaten du: *"adopt a structured approach, with a view to strengthening the use of Basque in the private electronic media in the Basque Country and in broadcasting in general in Navarra"*.

18. Ingeleseko jatorrizko bertsioak zera dio: *"The Committee of Experts urges the Spanish authorities: to amend the legal framework with a view to making it clear that the criminal, civil and administrative judicial authorities in Navarre will conduct the proceedings in Basque at the request of one party; to take the necessary measures to ensure, as appropriate, that the to a proceeding are specifically informed of the obligation of the*

judicial authorities in Navarre to conduct the proceedings in Basque if one of the parties so requests, in conformity with the undertakings entered into by Spain under Article 9 paragraph. 1.b.i and 1.c.i of the Charter; to take the necessary measures to increase the proportion of judicial staff in Navarre, at all levels and particularly among judges and prosecutors, who are able to use Basque as a working language in courts; to develop adequate training schemes for the judicial staff as well as for lawyers” (49 orria, 399 atalaren ondoren).

19. Ingeleseko jatorrizko bertsioak honakoa esaten du: “The Committee of Experts urges the Spanish authorities to review the career and training structure in the State public administration with a view to ensuring that an adequate proportion of the staff posted in the State administration offices located in Navarre have the necessary command of the Basque language to be able to use it as a working language. The Committee of Experts also encourages the Spanish authorities to take further measures to increase the proportion of Basque-speaking staff in the Navarre administration” (55 orria, 452 atalaren ondoren).

20. Ingeleseko jatorrizko bertsioak zera dio: “The Committee of Experts urges the competent authorities to encourage and/or facilitate the creation or the maintenance of a private radio station broadcasting in Basque in Navarre” (56 orria, 467 atalaren ondoren).

21. Ingeleseko jatorrizko bertsioak honakoa esaten du: “The Committee of Experts urges the competent authorities to take the necessary measures to encourage and/or facilitate the creation of at least one private television channel broadcasting in Basque in Navarre” (57 orria, 472 atalaren ondoren).

22. JUR 2007\290333.